


Osasun Eskualde Oinarrizkoa


Puente la Reina / Gares



Observatorio de Salud Pública de Navarra
Nafarroako Osasun Publikoaren Behatokia



Fuente: SITNA-ISPLN



1. Argibide orokorrak

	Eskualdeko balioa	Nafarroa
Biztanleria (2023):	8.122 Emak.: %48,3 Giz.: %51,7	672.155 %49,5 %50,5
Batez besteko adina:	Emak.: 44,7 Giz.: 44	46,3 43,2
Ugalkortasun-tasa:	%44,3	-
Gazteen mendekotasunaren indizea:	% 24,2	%24,7
Zahartzaroko mendekotasun indizea:	%31,5	%32,0
Gainzahartzea:	%18,2	%17,2
Atzerritan jaiotako biztanleak:	%13,7	%17,9
Bizi itxaropena:	Emak.: 85,7 Giz.: 81,3	86,8 81,3
Biztanleria-densitate:	29,7 biz.km ²	68,9 biz.km ²
Zabalera:	273,38 km ²	9758,6 km ²
Zer Eskualdetakoa den:	Eremu Zentrala (ikus mapa)	
Udalerriak:	Adiós, Añorbe, Artazu, Biurrun-Olcoz (sólo incluye: Olcoz), Cirauqui, Enériz, Guirguillano, Legarda, Mañeru, Mendigorria, Muruzabal, Obanos, Puente la Reina/Gares, Tirapu, Ucar, Uterga	

2. Komunitatea eta osasuna

Faktore soziodemografikoak eta ingurumenekoak.
Garesko osasun-eskualde oinarritzkoan, beste eskualdeekin alderatuta, bakarrik bizi diren 80 urte edo

gehiagoko gizonezkoen etxeen ehunekoa (% 22,0) handia da. Gainerako adierazle soziodemografikoak eta ingurumenekoak Nafarroako batezbestekoaren inguruan daude.


Osasunari dagozkion emaitzak. Garesko osasun-eskualde oinarritzko eskualdeen laurden hoberenean dago datu hauetan: HbA1c-ren neurketa duten diabetikoak (% 87,8) eta pisu gehiegi duten 6tik 9 urtera bitarteko mutilak (% 22,7). Hala ere, emaitza txarrak ditu datu hauetan: pisu gehiegi duten 6tik 9 urtera bitarteko neskak (% 37,6), soilik amagandik edoskitzen duten 6 hilabeteko haurrak (% 23,5) eta antsiolitikoaren eta antidepresiboaren kontsumoa (emakumeen % 18,2 eta gizonen % 9,6).

Inkesta-adierazleak. Hurrengo emaitza doitu* hauek Eremu Zentrala eskualdeari dagozkio (LAP zonifikazioa); Garesko eskualde oinarritzko zona horretan dago. Eremu Zentralak emaitzarik onena du zenbait adierazletan: gehiegizko pisua izatea (15 urteko edo gehiagoko emakumeek: % 32,3) eta bizimodu sedentarioa izatea (gizonek: % 16,4). Aitzitik, emaitzarik txarra du hiru adierazletan: frutak eta barazkiak egunero jatea (emakumeek: % 30,6; gizonek: % 24,5), tabakoa egunero erretzea (gizonek: % 24,9) eta alkohola astero edatea (gizonek: % 25,0).

***Oharra:** Inkesta-adierazleak eta hala eskatzen duten beste adierazle batzuk sexuaren eta adinaren arabera doitu dira, eskualdeen arteko konparazioa egin ahal izateko. Adierazle gordinak hurrengo orrialdearen behealdean agertzen dira.

3. Adierazleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira adierazle sorta bati dagozkion eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoarekin alderaturik (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarrikoen multzo osoarekin alderaturik. Adierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanez gero, haien [banakako fitxak](#) ikus daitezke Behatokiaren webgunean.



Adierazleen iturria: 1: Biztan. Mug. Nat.; 2, 6-7: SIPNa (Nafarroako Biztanleriaren Sistema Integratua); 3: Biztan. Akt. Ud. Estat; 4-5: Errenta. Estat; 8: SIGPAC (Nekazaritzako Lurzatiaren Informazio Geografikoko Sistema); 10, 24-27, 30-31: Oinarriko osasun-laguntza; 10-21: ESyCV (Gizarte eta Bizi Baldintzen gaineko Inkesta); 22-23: NOPLOI; 28-29: Farmazia prestazioa

Nafarroa Atlantikoaren adierazleak (10-21) LAP zonifikazioa (NASTAT). Irudian adierazitako balioen kopurua: 4.

* Nabarmen desberdinak ($p < 0,05$) Nafarroako emaitzarekin alderatuz (bizimoduaren, morbiditatearen eta osasun sistemaren adierazleentzako eginiko kontrastea).

1. Urteko batez besteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14 eta 19 urte bitarteko emakumeetan; 2. DBHko graduatu-titulurik edo haren baliokiderik gabeko 18tik 24 urtera arteko gazteen %; 3. Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean; 4. Bizikideen errentaren baturak pobrezia larriaren atalasetik behera egiten duen etxeetan bizi diren pertsonen %; 5. Diru-sarreraren desberdintasunaren Gini indizea, datu baxuagoak berdintasun handiagoa adierazten du; 6 eta 7. Bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko pertsonen %, adin horretan familia-etxebizitzetan bizi diren gutzien aldean; 8. Baso-azaleraren %; 9. 170-190 egunetara soilik amagandik edoskitzen duten haurrak %; 10 eta 11. Frutak eta barazkiak egunero jaten dituzten pertsonen % doitua (t. gordina: emakumeak 32,1 eta gizonak 24,4); 12 eta 13. 15 urteko edo gehiagoko sedentarioen % doitua: ariketarik egiten ez dutela diote (t. gordina: emakumeak 23,3 eta gizonak 16,5); 14 eta 15. Astean 100 g alkohol baino gehiago hartzen dutenen % doitua (t. gordina: emakumeak 10 eta gizonak 24,5); 16 eta 17. Tabakoa egunero hartzen duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doitua (t. gordina: emakumeak 13,3 eta gizonak 25,2); 18 eta 19. Ongizate orokor baxua duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doitua (t. gordina: emakumeak 31,6 eta gizonak 24); 20 eta 21. Pisu gehiegi, gehiegizko pisua edo obesitatea duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doitua (t. gordina: emakumeak 31,8 eta gizonak 57,5); 22 eta 23. Pisu gehiegi -gehiiegizko pisua edo obesitatea duten- 6tik 9 urtera arteko haurren prebalentzia doitua, OMEK haurren hazkuntzarako emaniko ereduaren arabera (t. gordina: emakumeak 37,6 eta gizonak 23,9); 24 eta 25. 2 motako diabetesa duten 20 urte edo gehiagoko pertsonen prebalentzia doitua (t. gordina: emakumeak 5,7 eta gizonak 8,4); 26 eta 27. 3 patologia edo gehiago dituzten 65 urteko edo gehiagoko pertsonen % doitua (t. gordina: emakumeak 8 eta gizonak 10,7); 28 eta 29. Azken urtean, multzo hauetako bateko 3 ontzi edo gehiago hartu dituzten pertsonen % doitua: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepresiboak (t. gordina: emakumeak 20,1 eta gizonak 9,8); 30. 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatua (HbA1c-a) neurtu duen biztanleriaren %; 31. Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala (TA) neurtu zaien biztanleriaren %.